BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

6315

EBAZPENA, 2011ko abenduaren 2koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena. Honen bidez, publizitatea ematen zaie Administrazio Kontseiluak 2011ko abenduaren 1ean enplegu politika aktiboen programak finantzatzeko esleitutako baliabide ekonomikoen kopuruak aldatzeko hartutako erabakiei.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2011n egin dituen bilkuretan, laguntzen hainbat deialdi onartu ditu eta berak gauzatutako enplegu-politika aktiboen programak finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitu ditu.

Diruz lagun daitezkeen hainbat programa estaltzeko aurrekontu-kreditu nahikoa ez dagoela kontuan hartuta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak, 2011ko abenduaren 1ean egindako bilkuran, finantzaketara zuzendutako baliabide ekonomikoak areagotzea erabaki du eta hartutako akordioak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindu du.

Hori dela eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak honakoa

EBAZTEN DU:

Lanbideren Administrazio Kontseiluak 2011ko abenduaren 1eko bilkuran besteak beste honako erabaki hauek hartu dituela jakinaraztea:

– Administrazio Kontseiluak 2011ko martxoarena 3ko bilkuran hartutako Erabakiaren bidez deitutako kotizaziopeko prestaziorik jasotzen ez duten eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko langabeak kontratatzea bultzatzeko laguntzen finantzaketara bideratzen diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa 8.500.000 eurotan areagotzea.

– 5.000.000 euroko zenbatekoa gehitzea ezgaitasuna duten pertsonak enplegu-zentro berezietan laneratzea sustatzeko programa finantzatzera, 1998ko urriaren 16ko Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Aginduaren arabera.

– Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 23ko 327/2003 Dekretuaren, enplegagarritasuna hobetzeko eta laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituenaren, II. Kapituluan araututako laneratzea lortzeko prestakuntza-baliabideen laguntzen programa finantzatzera bideratzen diren baliabide ekonomikoak 2.600.000 eurotan areagotzea.

Programa honen babespean diruz lagundutako jardunak Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatu dira, EAEko 2007-2013 EGF Programa Operatiboaren esparruan.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Lanbideeko zuzendari nagusiaren aurrean, edo administrazioarekiko

auzi-errekurtso bat aurkez dezakeela Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian zuzenean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen homek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 2a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.